

Zerkausia egokitzeako proiektua hobetsi dute herritarrek

Hamazazpi proiekturen artean botoa emateko aukera izan dute tolosarrek eta boto gehien lortu dituzten bost proiektuak hurrengo urteko aurrekontuan txertatuko ditu udalak //2

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izatea aldarrikatuko dute

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean; ziberindarkeria matxistaren inguruan ariko dira gaur, Villabonan //4



ASIERIMAZ

«Leitzako inauteriak atzeratu egin zituzten joaterik ez genuelako»

JESUS MARI ZALAKAIN ODRIOSOLA MUSIKARIA

Incansables, Nekaezinak, Anastasio, Kabila, Tolosano... txarangetan edota bakarrik bere bombardinoarekin urte luzez aritu da musikarekin giroa alaitzen tolosarra; txaranga beraiek asmatu zutela azaldu du //6



BASERRIKOA,
DENDATIK,
EROSLEARENTZAT,
HERRIAREKIN,

ZU

- Iturralde harategia (Tolosa)
- Basque Label harategia
- Gurdi kooperatiba (Anoeta)

baserritikzuretzat.com



@baserritikzuretzat

Zerkausi gainerako terraza egokitu eta herritarrei zabalduko zaie

Aurrekontu parte hartzaileen barruan, herritarrek bost proiektu gustukoena aukeratu dituzte, eta udalak hurrengo urteko aurrekontuan txertatuko ditu

Asier Imaz


Azaroaren 12ra arteko epea izan dute herritarrek, aurrekontu parte hartzaileen barruan, 17 proiekturen artean bozka emateko. Bada, Zerkausiako terrazari dagokion proiektuak jaso du boto gehien.

1.037 herritarrek eman dute botoa, iazko prozesuan baino 364 gehiagok, eta gehienek (344 boto) egin dute Zerkausiako terraza egokitu eta herritarrei zabaltzeko hautua.

Boto gehien jaso dituzten gainerako lau proiektuak ondorengoak izan dira: Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako udaleku irekiak sortzea, haurrentzako ur parkeak, merkataritza Plana auzoetan eta Larramendi auzoko jolas eta ariketa fisikorako gunea.

INPLIKAZIO <<HANDIA>>

Tolosarrek aukeratutako bost proiektuak 2024ko udal aurrekontuetan txertatuko ditu udalak, eta 500.000 euroko kostua izango dute. Andu Martinez de Rituerto alkatearen esanetan, herritarren inplikazio handia izan dute aurtengo parte hartze bidezko aurrekontuek: «Proposamen eskaerak eta bozketa fasean botoa eman duten herritarren kopuruak gora egin dute. Datu hauek erakusten dute badela herrria hobetzeko nolabaiteko inplikazioa eta konpromisoa herritarren partetik, eta poztekoa da».



Garikoitz Lekuona Gobernantza eta Komunitatea saileko arduraduna eta Andu Martinez de Rituerto alkatea. A. IMAZ

AUKERATUTAKO BOST PROIEKTUAK

Zerkausi gainerako terraza egokitu eta herritarrei irekitzea. Bozka gehien jaso duen proiektua izan da, 344 boto, hain zuzen. Urte luzez itxita izan da, eta izan duen degradazioa konpondu, altzari batzuk gehitu eta sarrera-irteeran ordutegiak automatizatzeko hobekuntzak txertatuko dituzte.

Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako udaleku irekiak sortzea. Urte askotan izan den eskaera da, eta eskaintza hori diseinatu eta martxan jarriko da. 303 boto jaso ditu proposamenak.

Haurrentzako ur parkeak. Ia 300 boto jaso ditu. Enpresa batzuekin dagoeneko jarri da harremanetan udala, eta behin eslebita, leku egokienak identifikatuko dira enpresa horrekin eta Hirigintza Sailarekin.

Merkataritza Plana auzoetan. Auzoetan komertzio txikiak babesteko, eta negozio berrien sorrera sustatzeko plan bat egitea proposatu da, auzoetan zerbitzu batzuk eskura izan ditzaten.

Larramendi auzoko jolas eta ariketa fisikorako gunea. Joan den urteko prozesuan atera zen proposa-

mena, baina ez zen gauzatu, ezta aurrekontuetan txertatu ere. Hartu zen konpromiso hori berriz hartu du udal gobernuak, eta aurtengo beste proposamen batekin osatu. Aurtengo aurrekontuetan txertatuko da. Auzotarrekin egindako bileretan, behar hori azpimarratu zuten. Larramendi 3ko plazaxoan, kalistenia eta helduentzako ariketa fisikoa egiteko tresnak jarriko dituzte. Larramendiko plazan, berriz, Montetxe kalearen ondoan, futbol zelaia eraikiko da, eta alboan jolas mahaia, ping-pong-ekoak, esaterako.

rrer partetik, eta poztekoa da». Era berean, herritarren kezkek ezagutzea «oso aberasgarria» izan dela dio alkateak: «Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei egindako ekarpen guztiengatik. Bozketara ez pasatzeak ez du esan nahi egingo ez direnik. Kontziente gara jasotako proposamen guztiei ezin izango diegula bide eman orain, baina batzuei beste bide batzuetatik ahal bezain beste txertatzeko ahalegi- na egingo dugu».

Proposamen ugari jaso dituztela nabarmendu dute, baina teknikariek egindako azterketa tekniko eta ekonomikoen arabera, asko «ez-bideragarri» gisa katalogatu dituzte. «Askok ez zuten proiektu izaera, interbentzio txikiak ziren. Hortaz, horiek mantenu-planetan txertatuko ditu udal gobernuak. Beste batzuk udalaren eskumenetatik kanpo-koak ziren. Eta beste batzuk, berriz, aurrekontua gainditzeko zuten, eta beste lanketa mota bat behar dute», azaldu du Garikoitz Lekuona, Gobernantza eta Komunitatea Saileko teknikari arduradunak.

Behin aurtengo prozesua amaituta, hurrengo urtekoari berehala helduko diotela azaldu du alkateak: «Hasiak gara hurrengo prozesuan pentsatzen, ikusi ditugulako hobetu eta argitu beharrekoak. Lan horretan sakonduko dugu, hurrengo urtekoa ere emankorra izan dadin».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Adunako eskolan aritutako belaunaldi ezberdinetako gurasoek, irakasleek eta ikasleek herri solasaldia egin dute elizan; garai bateko argazkiak erakutsi eta pasadizoak elkarbanatu dituzte

Esentzia mantentzen du eskolak

Jon Miranda

Duela gutxienez 70 urte kenketak eta batuketak egiten ikasteko eskolan erabiltzen zuten koadernoak erakutsiz abiatu du herri solasaldia Bibi Tejeria Adunako eskolako ikasle ohiak. Gogoan du Espainiako bandera nola jarri behar izaten zuten eskola atarian eta nola kantatu behar izaten zioten.

Urte batzuk beranduago eskola berean ibilitako Juan Kruz Igerabidek ere ikasi zituen *Cara el sol* bezalako kantuak eta haiek aho-pean hartuta etxera sartzerakoan akordatzeko da aitaren disgusturakin. Irakasletza ikasi ondoren, urtebete egin zuen maisu Igerabidek Adunan. «Eskola salbajea baina giro dibertitua zegoen». Idazleak esan du umeei idazteko joera garai hartatik datorkiola, faltan zeukatenez berak sortu behar izaten zuelako materiala.

Urte hartan Arantza Zabalak irakasle izan zuen Igerabide eta akorduan du euskaraz aritzera pasa zirela. Izan ere, euskara baino ez zekiten Adunako ume haiek. Horrekin konturatuta gaztelania erakutsi beharraz ohartu zen Karmele Ugarte Adunan urte askoan irakasle ibilitakoa urte batzuk beranduago. Ikasle izan zituenean Iasone Arrospide eta Naiara Artola sinetsita zeuden gaztelaniaz hizketan ikasgelan azaltzen zen andre hura andereño Karmeleren ahizpa bikia zela. Sagardotegietara eta baserrietara egiten zituzten irteerak, Basopeta eta Belkoainera egindako txangoak



Igandean udaletxeko balkoian zintzilikatu zuten Eskola Txikien Festaren irudia izango dena, Paue Cestauk egindakoa. L.C.

ESKOLA TXIKIEN FESTARAKO LOGOA, AUKERATUTA

Igandean kultur asteko egitarauaren barruan aurkeztu zuten Adunako Eskola Txikien Festaren logoa. Lehiaketa bidez erabaki dute jaiaren irudia izango dena eta Paue Cestau Sanchez eskolako ikasleak egindakoa suertatu da irabazle.

«Adunako esentzietako bat jasotzen du: sagarra. Linea garbiak dauzka. Bihotza irudikatzen du sagarrarekin, elkartasuna, maitasuna adieraziz. Letren tamainarekin eta

kolorearekin jokatu du, berde tonu desberdinekin. Gogoratuko den logo bat izango dela iruditzen zaigu», esan dute epaimahaikideek.

Adunaren izaera islatuko zuena eta herritar batek egin izatea. Horiek ziren logoari jarri zaizkion baldintzak lehiaketaren oinarrietan. 1997ko Adunako Eskola Txikien Festarako irudia ere modu berean aukeratu zuten eta orduko hartan beste ikasle batek, Ekaitz Otegi Lizarraldekin egin zuen logoa bere ikaskideen laguntzaz.

Igandean dagoeneko salmenta taldekoek postua jarri zuten plazan logo berriarekin prestatu duten materiala banatzeko. Horrekin ba-

tera, pintxoak eta Loatzo musika bandaren emanaldia ere izan ziren.

Hilabeteak baino ez dira falta Eskola Txikien Festa Adunan ospatu dadin, ekainean ospatuko baita. Eskola komunitateko kide guztiak «ilusioz eta gogotsu» daudela esan dute festaren antolatzaileek: «Herritarrek ere emozio handiarekin sumatzen ditugu, azken finean denok osatzen dugu Adunako eskola; eskola bera ez da ezer herririk gabe eta herriarentzat ere aberasgarria da eskola. Herritarrek sortzen laguntzen du eskolak, herria maitatzen, herria ezagutzen, herria bizitzen, eta laburbilduz, herriari bizi ematen».

eta euskal jaiak nola lantzen zizutzen aipatu du Ugartek.

HERRIAREN BABESA

Eskolako irakasle izandako Begoña Zelaia eta Lidia Urdinlaizek nabarmendu dute baldintza onenak ez baziren ere, esperientzia «oso ederra» izan zela haienztat Adunakoa. «1984an iritsi nintzen eta guraso batek esan zidan niretzako gelarik ez zegoela, mesedez ez ezer esateko delegaritzan. Apaiz etxe azpian egokitu genuen gerora ikasgela, gure modura moldatu ahal izan genuen eta luxu bat izan zen», esan du Zelaia. Gurasoengandik eta herri osoarengandik jasotako babesa du gogoan Amaia Sanchezek, bi aldi ezberdinetan irakasle izandakoa. «Apustua izugarria izan zen eta zazpi ume egonagatik ere udalak gudan sinetsi zuen».

Jabier Zabala alkate izandakoa aitortu du apustua «ongi» atera zitzaiela. 1997an Adunan lehen aldiz ospatutako Eskola Txikien Festa antolatzen aritu zen Josune Gerrikagoitia eta Mailu Aburuzarekin batera. «Vatikanoan ez beste leku guztietan eskatu genuen dirua», esan dute.

Hiru lagun hauek jardun zuten nagusiki duela 26 urteko festaren antolaketan. 2024koa prestatzeko jende gehiago arituko dela aipatu dute Itsaso Noval eta Amaia Zaruazek, gaur egungo eskolako zuzendari eta idazkariak. Erronka «polita» dela diote eta eskolan dabilzan 54 ikasleak eta haien gurasoak «gogotsu» daude festa antolatzeko. «Handitu da tamainaz baina esentzia mantentzen du eskolak», esan dute.

atarikideen
abontailak

SABERRI

%15eko
deskontua



EIZMENDI ANAIK

%15eko
deskontua



GARAZI LORADENDA

Lore sorta
opari



ATARIA

Deskontu
bereziak



ataria.eus/kideak



Bizirik, aske eta antolatuta

Mugimendu Feministak askotariko ekitaldiak antolatu ditu A25aren harira «emakumeok jasaten dugun indarkeria amaitu behar dela argi eta ozen esateko»



Kalera ateratzeko deia egin du Tolosaldeko Mugimendu Feministak. J.M.

Erredakzioa

Tolosaldeko Mugimendu Feministako kideek hainbat mobilizazio antolatu dituzte Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunari lotuta *Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak. Bizirik, aske eta antolatuta* lelopean. Gogoratu dute aurten ere indarkeria matxistaren ondorioak «beldurgarriak» izan direla; «Euskal Herrian lau emakume eta haur bat erail dituzte, nazkatuta eta amorratuta gaude. Gure babesa helarazi nahi diegu haurren senitartekoei eta eraildako emakumei. Zuen ondoan

izango gaituzue beti». Erailketa horiek indarkeria matxistaren ondorio larrienak direla esan dute, baina askotariko ertzak di-tuela eta «emakumeok, transok eta bollerok egunero jasaten» di-tuztela gaineratu dute. Indarkeria matxista ez dela kasualitatea eta sistema kapitalista, heteropatriarkala eta arrazistaren sostengu dela uste dute, indarkeria horrek balio baitu «askotariko desberdinkeria eta zapalkuntza egoerak sortzeko».

Erakundeei eta gizonezkoei eskatu diete erantzukizunak hartzeko.

A25 INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA TOLOSALDEAN

Amasa-Villabona

12:00. Elkarretaratzea Villabona-Zizurkilgo oinezkoen zubian.

12:15. Irradaka dantza, Zizurkilgo Saski kafetegia kanpoan. Eguraldi txarra egiten badu, Joxe Arregi plazan egingo dute.

Anoeta

19:00. Elkarretaratzea herriko plazan.

Altzo

18:00. Elkarretaratzea herriko plazan.

Bidania-Goiatz

16:00-18:00. Liburutegian Ez dadin gure bizitza eten bideo proiektzioa eta kafe tertulia.

18:00-19:00. Mural margotzea.

19:00. Elkarretaratzea frontoian.

Ikaztegieta

Egun guztian. Indarkeria matxistaren inguruan hausnartzeko erronka proposatu diete herriko gaztetxoek herritarrei: 5 galdera, 5 erantzunekin lotu behar dituzte herritarrek. E-mailzak ikusgai egongo dira herriko hainbat txokotan.

Orendain

12:00. Elkarretaratzea, herriko plazan. Ondoren, *Orendainek ez du indarkeria matxistarik onartzen* jartzen duen kartel morea jarriko dute herri sarreran eta taldeko argazkia aterako dute gero.

Tolosa

19:00. Manifestazioa Trianguloatik aterata, Batumore Tolosaldeko Batukada Feministak giro-tuta. Ondoren, Numen taldearen dantza saioa.

Villabonako Subijana etxean ziberindarkeria matxistaren inguruko hitzaldia antolatu du Lurgatz talde feministak udalaren laguntzaz; Miren Ros aditua ariko da hizketan gaur, 18:30etik aurrera

Indarkeria matxista baita sareetan ere

J.M. Amasa-Villabona

Lurgatz talde feministak ziberindarkeria-
ren inguruko solasal-
dia antolatu du gaur
Amasa-Villabonako
Udalaren laguntzaz Subijana
etxean. Miren Ros Aiartzaguena
Bidelagun taldeko kideak
emango ditu bertan azalpenak
18:30etik aurrera. Ohiko hitzal-

dia baino gehiago, solasaldia
izatea nahi du Rosek, «norbere
bizipenetatik abiatuta, ondorio-
ak elkarrekin ateratzeko».

Hasiera batean gurasoentza-
ko pentsatuta zegoen gaurko
saioa, baina nerabeei ere zuden-
du diete deialdia, sarean ematen
den indarkeria matxistak
zuzenean eragiten baitie hauei.

«Jendartean ematen den in-
darkeria matxistak sarean duen

isla da ziberindarkeria», esan
du adituak. Rosen hitzetan, or-
dea, baditu ezaugarri batzuk be-
reziki larria egiten dutenak:
«Anonimotasuna da horietako
bat, anonimotasun horretatik
astakeriak botatzera ausartzen
da jendea, inpunitate osoare-
kin. Oso arriskutsua da». Inter-
neten oro har baina, bereziki,
sare sozialetan egin du azpima-
rra Rosek, Instagram-en eta Tik-
Tok-en nagusiki. «Edonork sor-
tu dezake kontu faltsu bat apli-
kazio horietan inongo
zailtasunik gabe».

GAZTEAK JOMUGAN

Gazteak dira gehienbat sare so-
zial horiek erabiltzen dituzte-
nak, eta beraz, ziberindarkeria
matxista jasotzeko arrisku han-
diagoa dutenak. Horregatik
kontzientzia hartzea garrantzi-
tsua dela uste du Rosek: «Gaur
egungo gazteek berdintasuna-
ren ilusio bat bizi dute. Heldua-
goak garenok beste errealitate
bat bizi izan dugu eta berdinta-

sunaren alde borrokatu behar
izan dugu. Gazteagoek uste dute
jendarte parekide bat bizi dute-
la, baina errealitatean ez da ho-
rrela, jazarpena egon badago».

Sarean irudiak duen boterea
eta indarra «izugarria» da adi-
tuaren hitzetan eta ezberdin
tratatzen dira bertan emaku-
mezko eta gizonezkoen gorpu-
tzak: «Emakumeena beti ageri
da hipersexualizatuta eta gizo-
nezkoaren gorputza, berriz, beti
begiratzen da indarretik eta bo-
teretik». Pertsona ezagunen
ereduari jarraitzeak dakarren
arriskuaz ere hitz egingo du Ro-
sek gaurko saioan, eta baita, ha-
rreman osasuntsu batzuk era-
tzeko orduan pornografiak eka-
rri duen kalteaz. «Gizon eta
emakumeen rola oso markatu-
ta daude gazte-gaztetatik eta
hori deseraiki egin behar dugu».

PREBENTZIOA

Kontzientzia hartu eta preben-
tzioan arreta jartzean egingo
dute azpimarra gaurko hitzal-

dian. «Emakumeok ezin ditugu
zenbait gauza onartu. Gure bi-
kote-kideak ezin ditu gure sare-
ak kontrolatu, ezin dizkigu pa-
sahitzak eskatu, ezta argazki bat
edo bestea igo ote dezakegun
esan. Eta aldi berean, ez bagau-
de eroso, ez ditugu zertan kon-
partitu behar gure argazki inti-
moak. Horrelako zerbait pasa-
tzen denean alarma gorriak
piztu behar dira».

Rosen hitzetan, sare soziale-
na olatu bat bezala etorri da gu-
rera eta indarkeria matxistak
topatu du zirrikitua jazarpena
eremu horretara ere eramateko.
«Legeak ere pixkana egokitu be-
har izan dute egoera berrira.
Dena den, ematen diren zibere-
raso matxisten %80 inguru ez
da salatzen».

Gai hauen inguruan hitz egi-
teko aukera izango da gaur Vi-
llabonako Subijana etxean eta
Rosek gurasoei euren seme-ala-
bekin gerturatzeko deia luzatu
die. 18:30ean hasiko da solasal-
dia.

Ikaztegieta Udala



**INDARKERIAREKIN BUKATZEA
DENON ARDURA DA**

**Zaintza-langileen aurkako
indarkeriari ere ezetz esateko,
azaroaren 30ean denok grebar!**

IBIUR URTEGIAREN BETETZE MAILA

Ibiur urtegiaren betetze maila, azken hamar urteetan

8 hektometro kubiko ur jasotzeko prestatuta dago, eta horrekin eskualdeko 60.000 pertsona hornitzen ditu; une honetan, %62,5eko betetze maila du

Erredakzioa

Ibiur urtegia Gipuzkoako hamar urtegietatik berriena da. 2010. urtean bete zuten lehen aldiz. 2003. urtean hasi ziren urtegia eraikitze lanak eta horretarako 200.000 metro kubiko hormigoizituen horma ikaragarri bat eraiki beharra izan zuten, 63 metroko altuera, 9 metroko zabaleara eta 230 metroko luzerarekin.

Ibiur urtegia zortzi hektometro kubiko ur jasotzeko prestatuta


dago. Ur horrekin eskualdeko hamaika herritako ia 60.000 biztanle hornitzeko helburuarekin egin zen; Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Andoain. Balia-rraingo lurretan eraiki bazen ere, Baliarrain eta Orendain herrien artean dago kokatuta.

IA URTERO GUZTIZ BETETA

Espainiako Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako

Ministerioak urtegien inguruko informazioa ematen du. Bertan agertzen diren datuak borobilduta badaude ere, ondorio batzuk atera daitezke.

Ibiur urtegia 7,6 hektometro kubiko ur jasotzeko prestatuta dago; hori da bere betetze maila gorena eta urteko batez bestekoak kontuan hartuta, azken zortzi urteetatik zazpitan kopuru horretara iritsi dela ikus daiteke. Espainiako ministerioak emandako datuetan 2013 eta 2014 ur-



2010 urtetik 2023ra, urtegiaren maximoak eta minimoak.

teetan berez jasotzeko prestatuta dagoen ur kopurua gaintu zuela zehazten da, 11 eta 10 hektometro kubiko hurrenez hurren, baina Ibiurko ustiapen zuzendaria Atariari baieztatu dio datu hori ez dela zuzena, Ibiur urtegiak 7,6 hektometro kubikoko gaitasuna baitu.

Urtez urteko batez besteko maila baxuenari begiratuta berriz, eta lehen bi urteak kontuan hartu gabe, 2015 eta 2016. urteetan kopururik txikiena izan zue-

la aipatu daiteke, 4 hektometro kubiko zehazki. Gainontzekoetan 5 eta 6 hektometro kubikoetan izan da gutxienekoa.

Bestalde, azken hamar urteetan, guztira, urtegiak batez beste, 26.913 hektometro kubiko (%47,94) jaso dituela adierazten dute datuek.

Azken eguneko datuari erreparatuta, berriz, atzoko egunez, 5 hektometro kubiko zituen urtegiak eta %62,5ean zegoen bere betetze maila.

Rebeka Calvo

Ibiurko ustiapen zuzendaria da Aitor Lander Iza (Bilbo, 1968). Espainiako Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioko datuetan jasotakoa ez dela zuzena esan du, «7,6 hektometro eduki gaitasuna baitu». **Jasotako datuen arabera, Ibiurko gehieneko ur kopurua 8 hektometro kubiko dira, baina 2013an 11 zituen, eta 2014an 10. Zer dela eta? Datu horiek ez dira zuzenak?**

Datu horiek ezin dira zuzenak izan, Ibiur urtegiak 7,6 hektometro eduki gaitasuna baitu. Izaitez, urtegiak duen gehieneko edukia, presak daukan gainezkabideko kotak ezartzen du. Horrela, eurite baten ondoren urtegiaren gaitasuna gaintitzean, gainontzeko ura gainezkabidetik irtengo litzateke errekarra, gehiengo maila horri eutsiz. Eurite batek ur gehiagi elkartzerakoan, gainezkabideak gai ez bada kota bere mailan eusteko,

«Urtegiak hornitutako biztanleria aurreikusitako kopurura hurbiltzen da»

AITOR LANDER IZA
IBIURKO USTIAPEN ZUZENDARIA



hustubide balbulak eragin beharko genituzke, kota hori beti bere mailan mantentzeko. Beraz, urtegiaren gaitasunak balio finko horri eutsi behar dio.

Nola kontrolatzen da betetze maila hori? Zer egiten duzue?

Betetze maila kontrolatzeko, presan bertan daukagun neurgailuaren bitartez azaleraren kota jarraian neurtzen dugu, eguneroko erregistroa telematikoki eramanaz, haren aldaketa grafikoki monitorizatzen.

Zein da 10 urte hauetako balorazioa? 56.078 biztanleri ura hornitzeko sortu zen, bete da helburu hori?

Gaur egun urtegiak hornitutako biztanleria kopuru horretara nahiko zehatz hurbiltzen da.

Zer lan egin behar dira urtegia modu egokian mantentzeko? Eta zein kostu du horrek?

Presaren batek duen funtzio garrantzitsua ura eustea izanik, oso lan estatikoa egiten du. Lan hori, presaren hormaren esku dagoenez, bere egiturazko gaitasuna kontrolatzen dugu, hainbat neurgailuen bitartez. Hori da mantenu lanik nabarmenena. Beste lan aipagarriak, noski, ura hornitzeko edota hustubideetako hodien eta balbulen mantenua eta urtegi osoaren inguru dagoen bidearen mantenua izango litzateke.

Kostuen aldetik, urtegi bat luze irauteko azpiegitura izanik, aipatutako lanek ez dute eskulan eta material aldetik gehiegirik eskatzen. Halako azpiegiturak,

behin hamarkada batzuen zehar lan egin ondoren, posible litzateke mantenu lan bereziak behar izatea presaren funtzioa behar den moduan mantentzeko eta lan horien kostua aipagarria izatea estimatzen dugu. Ibiurreko kasuan, oso presa gaztea izanik, oraindik mantenu kostuak baxuak dira.

Badira urteak, urtegiaren aisialdiari begirako erabilpenari buruz hitz egin zela, gaur egun ez da posible, baina aurrerako bat al da etorkizuneko aisialdirako erabilpenen bat ematea? Hala balitz, zein izango daiteke?

Urtegiaren jabetza Kantauriko Ur Konfederazioaren esku dago, Gipuzkoako Urak urtegiaren emakida izanik bereziki Tolosaldean uraren hornidura bideratzen.

Konfederazioak urtegiaren funtzioa ur hornidura izanik, aisialdirako ekintzak debekatzen ditu. Etorkizuneko erabilpenak haien esku geratuko lirateke.



Tolosaldeko tenperatura eta prezipitazioa **2002-2022.**

Lanketa bereziak eta grafiko guztiak, hemen:



Joxemi Salzar

Santa Zezilia eguna da gaur, musikarien eguna, eta Tolosako Musika Bandak kalejira egingo du, 19:30ean Gorriti plazatik abiatuta. Igandean, berriz, Santa Zeziliako kontzertua izango da, Leidorren, 12:00etan hasita, eta bertan Tolosako Udal Musika Banda, Giro Arte Dultzaina taldea, Udal Txistulari Banda, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra eta Hodeiertz abesbatza ariko dira.

Musikaz badaki zerbait Jesus Mari Zalakain Odriozolak (Villabona, 1941), bizitza osoan aritu baita musika jotzen, txarangetan eta bera bakarrik ere askotan, bere bonbardinoarekin: Incansables, Nekaezinak, Anastasio, Kabila, Tolosano... Tolosar batekin ezkondu zenetik Tolosan bizitza, eta Hernanin omenaldiak egin dizkiote. 82 urte izateko indartsu eta osasuntsu dago «potajea, laranja eta gaztari esker».

Orain jende gehienak Pipas deitzen dizu, baina zure goitizena beste bat da.

Villabonan jarri zidaten, txikit. Hotza egiten zuenean sudurra gorri-gorri jartzen zitzaidan, piper morroa bezala, eta Pipas deitzen hasi ziren. Jende askok Pipas deitzen dit eta batzuk esaten zuten pipan erretzen nuela zela, baina ez da horrela.

Nola hasi zinen musikan?

Juanito Gurrutxaga txistulariarenekin solfeo ikasi nuen. 9 urterekin Villabonako bandan sartu nintzen onoben instrumentuarekin, bonbardino txikia, mi bemo. Migel anaia zaharrenak bonbardinoa jotzen zuen bandan eta etxera ekartzen zuen ikasteko. Harekin hasi nintzen nire kontura, ezkutuan. Konturatu zenean, hurrengo igandean bere ordeztu jotzeko esan zidan. Villabonan musikari asko zegoen eta igandero jotzen zuen bandak. Bitoriano Zapirain zen zuzendaria, Salvadora paper-fabrikako burua.

Eta noiz hasi zinen txarangetan jotzen?

Orduan ez zegoen txarangarik. Juanito Colmeneroren Beotibar bandarekin hasi nintzen Leitzaiko jaietara joaten. 13 musikari ginen: bere anaia Alejandro eta Pascual Garces tronpetak, Gabriel Urrea kontrabaxua, Antonio Crespillo, Andoingo Etura eta Xope klarineteak, Irungo rekinto bat, Paotxaren aita tronboiarekin... Eta Colmenero bera baterian aritzen zen. Beotibar orkestrina ere bazuen Colmenerok. Dena sueltotan jotzen genuen, debekatuta zegoen helduta dan-

«Paotxaren aitak esan zidan urte asko iraungo nuela eta asmatu zuen»



A. IMAZ

JESUS MARI ZALAKAIN ODRIOZOLA MUSIKARIA

Txarangetan nahiz bonbardinoarekin bakarrik, bizitza osoa eman du musika jotzen tolosarrak; omenaldiak ere egin dizkiote

tza egitea. Egunean 60 pezeta kobratzen genuen eta bost egunetan joaten ginen. Urteak egin nituen. Paotxaren aitak esan zidan urte asko iraungo nuela eta asmatu zuen.

Eta nola bukatu zen hori?

Diru gehiago eskatu genion udalari eta honek ezezkua eman zuen. Orduan Iruñeko banda militarra hasi zen etortzen urte batzuetan, baina ez zeukaten saltsarik arin jotzeko. Festara lagunekin joan nintzen batean, Karlos Agirre *Gaztelu* eta koadrilla handi batek bonbardinoa eramateko esan zidaten. Etxera eramane ninduten bila eta hala hasi nintzen. Azken egunean paper-fabrikako langileek bazkaria egiten zuten goiko ostatuan eta Jesus soinuazalearekin joan nintzen. Diru bilketa egin zuten guretzat eta alkateak herriko seme izendatzea proposatu zuen. Gero plazan jotzen aritu ginen eta *Arantzako baltsa* jo nuelako

Guardia Zibileko sarjentuak bonbardinoa kendu zidan. Goizeko ordubatean nire aldeko kristoren manifestazioa egin zuten alkatearen etxeraino.

Noiz hasi zinen txarangak?

Hori guk asmatu genuen. Alcoyanon 25 lagun ibiltzen ziren. Tabernetan jotzeko ez da jende asko behar. Gazteluk deitzen zidan Leitzako festetara joateko musikari batzuekin eta hala hasi ginen Canario, Zapa, Paotxa, Sietemesino... Bonboa eta txapak herrikoek jotzen zituzten. Denbora dezentetik egin genuen bost edo sei lagun bakarrik joaten. Gero gaupasa egiten genuen Zapa danborrarekin eta biok jotzen. Karnabaletan ere joaten ginen Leitzara. Behin atzeratu egin zituzten ezin gendelako joan eta meza entzuteko kalean zeuden bozgorailuetan apaizak esan zuten Inauteriak atzeratu egin zirela Zalakainek ezin zuelako joan.

Eta hortik Incansables txaranga sortu zen.

Urte batean udalak ordaindu behar zuela eta izen bat jarri behar zela programan esan zidan Gazteluk. Ordurako jendeak esaten zigun *incansables* ginela jotzen. Eta izen hori jartzeko esan nion.

Zaparen hilketa ere bizitu zenuen.

Hondarribiko golfean ezkontza batean izan ginen jotzen, Hernaniko Yausika diskotekan bukatu genuen eta etxera joateko esan nion. Handik ordu gutxira alkateak deitu zidan Zapa hil zutela esanez. Garai hartan ultraeskuindarren hilketa asko izan ziren Hernani-Andoain inguruan eta jendea segika sumatzen genuen.

Txaranga asko izan dituzu.

Incansablesekin azken emanaldia Everest igo zuen Martin Zabaleta mendizalearen etorrera izan zen. Bere aldetik jarraitu nahi zutela esan zidaten. Nire aldetik jarraitu nuen beste musikari batzuekin: Ilde Mendinueta eta Javi Arrieta tronpetak, honen lehengusua JJ Arrieta eta Lacalle saxoak, Boniki anaiak, Petas Azkarate... Gero horietako batzuk Iraunkorrek sortu zuten. Azken urteetan Nekaezinak izenarekin aritu gara lagun batzuk.

Noiz hasi zinen Tolosara etortzen?

Oso gaztetan hasi nintzen Kabilara etortzen, 1955ean. Gero Incansables sortu genuen jendea ere Kabilan ibili zen. Hor Patxi Arratibelen hilketa bizitu nuen. Harreman handia nuen berarekin, lanean eta txarangan. Tolosano elkarteko txarangan ere urte asko egin ditut inauterietan. Inauteriak behin utzi ditut: Peña Anastasiorekin Kanaria uhartera joan ginenean jotzera. Hamabi egun egin genituen. Han bonbardinoa lapurtu zidaten, katalan batzuekin euskal gatazkari buruz hizketan ari ginela.

Zein dira musika jotzen gehien ibili zaren herriak?

Lesaka, Hernani, Leiza, Goizuetan ibili naiz gustuen, etxean bezala. Tolosa, Altsasu, Agoitz, Los Arcosen eta Sakanan asko ibili gara. Iruñeko sanferminetara ere asko joan naiz, baina nire

kontura, txarangetan bonbo gehiegi zegoelako eta ez zait gus-tatzen. Orain 15 musikari edo gehiago joaten dira Iruñeko peñetara. Gu gehienez 9 joaten ginen. Bizkaian, Araban eta Ipar Euskal Herrian ere ibili naiz. Ezkontzetan ere aritu naiz, urte askoan Errenteriako Versalles jate-txean. Elkarrekin birak egiten genituen asko. Sagardotegi eta bodegetan ere maiz. Euskal Herriko Itzulian urte askoan. Eta kanpoan Kanaria uharteretan, Xixon eta Bartzelonan.

Eta lanarekin nola moldatzen zinen?

14 urterekin hasi nintzen lanean. Obretan aritzen nintzen. Lan asko pasatu ditut. Bakailaoetan ere ibili naiz Kanadan, neguan lau hilabete zero azpitik 18 gradura. Orduan txistua jotzen nuen eta hara eramane nuen. Kamioiarekin ere hamahiru urte egin nituen lanean. Portugalera burdina eramane eta egurra ekartzen genuen.

Bizimodu gogorra musikarientzat.

Gustatu egin behar zaizu, diruagatik bakarrik ezin da iraun. Ez da bakarrik musika jotzea, baita batekin eta bestearekin egotea. Andreak ere asko lagundu zidan. Pazientzia handia izan zuen nirekin. Eta osasunak ere lagundu

«Txaranga guk asmatu genuen. Tabernetan jotzeko ez da jende asko behar»

«Musikaria izateko gustatu egin behar zaizu, diruagatik bakarrik ezin da iraun»

dit. Behin bakarrik izan nuen istripua, Soraluzetik etortzen zutlora joan nintzen. Astebete egin nuen klinikan.

Zein dituzugustuko piezak?

Pot-pourriak. Nik asmatzen nituen, pieza bat hasi, gero segidan besteak. Sueltoko piezak ere bai. Inauterietako *Pitxi pitxi* oso polita da. Pasodobleak asko gustatzen zaizkit: *Fiesta en la Caleta*, *Amparito Roca*...

Eta ezagutu dituzun musikari onenak?

Canario musikari bezala onena izan da eta gainera idazteko buru ona du. Manolo Rico ere musikari handia izan da.

Gazteak nola ikusten dituzu?

Urrutitik entzuten ditut, ez naiz asko gerturatzen. Errioxako Strapalucio txaranga oso ona da.

Segitzen al duzu jotzen?

Bai, baina orain gutxiago. Ezpainak ez dit uzten.

Behar Zanako Arrillaga eta Erasun, Gipuzkoako txapeldunak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Behar Zana elkarteko Miriam Arrillaga eta Itxaso Erasun Gipuzkoako eskuz binakako txapeldunak dira nagusien mailan. Finalean 22-17 irabazi zieten Gazteleku klubeko Leire Garai eta Nora Mendizabali. Behar Zana bikotea partida guztian zehar gehiago izan zen. 11-3 eta 20-11 aurretik ere izan ziren. Bukarera, ordea, markagailuan gerturatu egin ziren aurkariak.

Tolosaldea IKT igeriketa taldeak ikasturtea zabalduko du

Erredakzioa

Usabal kiroldegiko igerilekua berriro erabilgarri izango denez, Tolosaldea IKT igeriketa taldea 2023-2024 ikasturtea martxan jartzera doa. Igeri egiten ikasteko edo hobetzeko 6 urtetik gorakoentzako izen-ematea zabalik dute. Azaroaren 27an edo 28an, 17:30ean elkartuko dira Usabalgog igerilekuan. Bestalde, 18 urtetik gorakoentzako den master taldean ere izena eman daiteke. Horiek asteen zehar hiru saio egingo dituzte, goiz, eguerdi edo gauean.

Izena emateko 688 80 74 05 zenbakira deitu edo whatsapp mezua bidali daiteke, edo *tekni-kariak@tolosaldeaikt.eus* helbidera idatzi.

Iberiar Txapelketa irabazi dute Saralegik eta Regillagak

Nage No Kata modalitatean lortu dute garaipena Judo Klub Tolosako bi judoek; denboraldi berrirako sailkapenerako puntu baliotsuak lortu dituzte

Imanol Garcia Landa Tolosa

Judo Klub Tolosako Unai Saralegik eta Unai Regillagak larunbatean Caceresen (Espainia) jokatutako Nage No Kata IX. Iberiar Txapelketa irabazi zuten. 434,5 puntu lortu zituzten, eta bigarren geratu zirenak 411 puntura iritsi ziren.

Saralegi gaixo egon zen, eta Munduko Txapelketaren ondoren ezin izan zituzten entrenamendu asko egin. «Datorren urterako sailkapenerako lehen proba izaten da, eta puntuak jokoan izaten direnez, bertara joatea erabaki genuen», esan du Saralegik. «Gure betiko aurkariak, Extremadurako bikoteak, ez zuten parte hartu, bati ebakuntza egin ziotelako. Beraiek ez zeudenez,

bidea nahiko zabalik genuen garaipena lortzeko».

Saioan nabaritu zuten aurretik izandako entrenamendu falta. «Nik nabaritu nuen eta kostatu zitzaidan saioa bukatzea», esan du Saralegik. «Baina bideoa ikusi genuen, eta ez zen asko nabaritu. Nahiko aldea atera genien bigarrenari eta hirugarrenari eta Munduko Txapelketako arantzaxo hori kendu dugu».

Judo Klub Tolosako beste bikotea, Joseba Regillagak eta Joseba Etxarrik osatutakoa, ez zen txapelketan izan. Etxarri orkatila minduta itzuli zen Munduko Txapelketatik. «Iberiar Txapelketaren aurreko astelehenean proba egin zuten, eta erabaki genuen hobe zela ez joatea, minarekin baitzegoen».



Unai Regillaga eta Unai Saralegi judokak, Iberiar Txapelketan. ATARIA

Eskualdeko bost pilotari, binakakoan

Erredakzioa

Ostiral honetan jarriko da martxan lehen mailako Binakako Pilota Txapelketa. Ohi bezala, zortzi bikote ariko dira lehian, enpresa bakoitzetik lau. Tolosaldeak ordezkaritza zabala izango du txapelketan, hamasei pilotarietatik bost eskualdekoak baitira. Aspetik Jokin Altuna amezketarrak Martijarekin jokatuko du; 2022 txapeldun izan zen bikote hori. Xabier Tolosa atzelari anoetarra berriro ere titular izango da, eta Ezkurdiarekin ariko

da; aurreko txapelketan Altuna III. arekin aritu zen, eta finalerdietako ligaxkan lesionatu egin zen. Baiko Pilota enpresatik eskualdeko hiru pilotari ariko dira. Berritasuna Iñaki Artola alegiarrak izango da, aurreko bi txapelketetan ez baitzen sartu; Imaz izango da bere atzelaria. Erik Jaka lizartzarra Mariezkurrena II. arekin ariko da, gaur egun sasoi onenean dagoen atzelaria. Jon Ander Peña tolosarra Albisurenekin ariko da, bikote sendoa osatuz.

Beste hiru bikoteak Elordi-Re-

zusta, Peio Etxeberria-Zabaleta eta Laso-Aranguren izango dira. Altuna III.a lesionatuta dago, eta ez da hasiko txapelketan lehiatzen oraingoz, bere ordezkari Elezkano II.a ariko da. Laso ere ez dago guztiz osatuta bere lesiotik, eta bere ordezkari Larrazabal ariko da.

Txapelketak azken urteetako dinamika bera izango du. Hamalau jardunaldi izango ditu hasierako faseak, eta bikote bakoitzak besteen aurka bi aldiz jokatuko du. Fase hori bukatzerakoan, lehen bi bikoteak zuzenean fina-

lerdietarako sailkatuko dira. Hirugarren eta laugarren sailkatuek elkarren aurka jokatuko dute, eta irabazlea ere finalerdietara sailkatuko da. Galtzaileak beste aukera bat izango du: bosgarren eta seigarren sailkatuen arteko neurketako irabazlearen aurka jokatuko du finalerdietarako azken lekuaren lehian.

Finalerdietan ligaxka jokatuko dute lau bikoteek elkarren aurka eta lehen bi sailkatuek jokatuko dute finala. 2024ko martxoaren 31n jokatuko da finala, Nafarroa Arenan.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 DURANGOKO AZOKAKO

2023ko nobedadeen sorta

58. Durangoko Azoka. DA! Abenduaren 6tik 10era. durangokoazoka.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g DONOSTIA 943 45 88 56 www.la-perla.net



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta

Erroxape kaia BERMEO 946 18 65 00 www.alakrana.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako osteguneko 11:00ak arte. Saridunak asteartean, urriaren 3an, argitaratuko ditugu.



ASTEAZKENA, 2023KO AZAROAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 22

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Alex Txikonen hitzaldia, kultur etxean, 18:30ean.
Amasa-Villabona. Ziberindarkeria matxistahitzaldia, Subijana etxean, 18:30ean.
Asteasu. Odola ematea, udaletxean, 16:00etan.
Asteasu. Azpimarrak aztergai tertulian, kultur etxean, 18:00etan.
Berrobi. Gure Plazatxo! aurkezteko bilera irekia, gaztetxean, 19:15ean.
Larraul. Historia independentea mintzaldi ilustratua, Asisko Urmenetaren eskutik, 19:00etan.
Tolosa. Heziketa digitala, Errota haur liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. Gure kontsumoa jasangarriago egiteko bideorria zehaztuko duguhitzaldia, 18:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Alegia. Itzalak, Gurean, 20:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Errezetak. Aintzane Artola.
18:00. Desafioa. Herri kirolak.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza.

28 KANALA

10:30. Maialen Aristegiren saioa.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
15:00. Elkarrizketa.
20:00. Getariarren bira.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Azokatik mahaira - Hondarribia.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Bustitik jarraituko du. Goizean euria sarri eta mardul egingo du, litro politak pilatuko direlarik. Arratsaldean tartekatuago eta ahulago egingo du, baina gauera arte ez du lortuko erabat atertzerik. Ipar-haizea zakar edo oso zakar ibiliko da eta tenperaturak beste pixka bat behera egingo du, 8-11 graduan joz goia. Egunaren bigarren zatian elur-maila 1.100/1.200 metroan kokatuko da.

Bihar. Giro lasaiagoa. Goizean ostarate zabalak izango dira eta giro lasaia izango dugu, non egunsentian hotz handia egingo duen. Arratsaldean zehar hodeiak ugaritzen joango dira, azken orduetan euri pixka bat egitea baztertu gabe. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura antzeko kokatuko da, 8-11 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Nerabeek Iker Galartza elkarrizketatuko dute

Galtzaundiren Sormenetik Gurera ekimenaren barruan, artista tolosarrarekin solasaldia izango da Villabonan larunbatean



Lehen saioan Antton Telleria elkarrizketatu zuten Villabonako gazteek. I. SAIZAR

Erredakzioa Amasa-Villabona

Sormenetik Gurera egitasmoaren saio berria izango da larunbatean, hilaren 25ean, Villabonako Errebote plazan, 12:00etan hasita. Galtzaundi Euskara Taldeak sustatzen duen ekimenaren hirugarren saioan Iker Galartza umoregile tolosarra elkarrizketatuko dute nerabeek.

Euskal Herriko artistak eta sortzaileak elkarrizketatzea du xede Euskara Taldeak Tolosako Azokaren testuinguruan antolatzen duen Sormenetik ekimenak. Bada, egitasmo horren aldaera da Sormenetik Gurera. Galtzaundik azaldu duenez, eskualdeko eragileen arteko lan-

kidetza sustatu eta nerabeen arteko harreman sareak sortzea du helburu proiektuak, euskararen eta euskal kulturaren transmisioan sakontzearekin batera; «nerabeengan sormena sustatzeko eta euskarazko kultur eskaintza balioan jarri eta nerabeengana gerturatzeko ere sortu da egitasmoa», esan dutenez.

Villabonan larunbatean egingo duten saioa Irrika aisialdi elkartearekin elkarlanean eta Villabonako Udalaren laguntzarekin egingo dute. Irrikako gazteak izango dira Galartza elkarrizketatuko dutenak, eta euskara taldetik esan dute elkarrizketa «arin eta freskoa» izango dela: «galdera biografikoak, gaur

egungo jardunari lotuak, galdera deserosoak eta challenge dibertigarri bat ere egingo diote gazteek». Ekitaldia bera osatzeko ardura ere billabonatarrek izango dute. Hala, elkarrizketa antolatzearekin batera, beharrezko materialak zerrendatu, saioari forma eman eta euskarri komunikatiboak sortzea izango da euren ardura, besteak beste.

Sormenetik Gurera ekimeneko lehen saioan Villabonako Malkar aisialdi taldekoek Antton Telleria kazetari tolosarra elkarrizketatu zuten, eta bigarren saioan, Ibarrako Gaztezuloko gazteek Eñaut Elorrieta musikari gernikarrarekin egin zuten solasaldia.

Atarikideentzat saski bat dugu

Ikaskoliko Pettarra saskia

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com